

ELA-LAB-ESK-STEILAS-EHNE-HIRU-CGT EXIGEN MEDIDAS URGENTES PARA DETENER LA SANGRÍA DE ACCIDENTES LABORALES

La actividad económica se ha reducido drásticamente como consecuencia de la Covid-19, sin embargo, 8 personas han fallecido en accidente laboral en 2020. La pandemia ha mostrado con mayor claridad que nunca que la salud puede ser un daño colateral al sistema económico.

Estamos en noviembre, el año aún no ha terminado y ya han muerto al menos 8 personas en Navarra por un accidente laboral, de un total de 53 en Hego Euskal Herria. Entre ellos se encuentra Joaquín, cuyo cadáver sigue enterrado en el vertedero de Zaldibar. Aparte de estas 53 personas, muchos trabajadores y trabajadoras han enfermado o fallecido con motivo de la Covid-19. Queremos denunciar que los datos de siniestralidad son cada año peores y no vemos cambios funcionales ni por parte de las empresas ni de los gobiernos de turno.

Los accidentes de trabajo y enfermedades profesionales son inaceptables. A día de hoy existen suficientes medios técnicos y humanos para evitarlos, pero cuestan dinero y las empresas y la patronal no quiere invertir en prevención. Siempre priorizan la productividad, el beneficio económico a corto plazo frente a la seguridad y salud de la gente, también en estos tiempos de pandemia, donde se viene trabajando durante meses sin las necesarias medidas de protección frente a la Covid-19 y el resultado es catastrófico para los y las trabajadoras que sufren la precariedad todos los días en los centros de trabajo.

Este año esta aún por concluir y el Instituto de Salud Laboral aún no ha publicado las estadísticas oficiales de 2020, pero la tendencia de los datos de siniestralidad laboral en los últimos años es pésima. Hay que tener en cuenta el confinamiento domiciliario que nos impusieron en marzo en el que muchas empresas tuvieron que parar su actividad por no considerarse esencial, y a pesar de este parón en la actividad laboral y la posterior crisis económica, los datos son muy negativos en cuanto al número de personas fallecidas. Denunciamos asimismo la contradicción que ha supuesto el confinamiento de la población en sus domicilios con la obligación de desplazarse a trabajar y el riesgo de contagio en las empresas en muchos casos en sectores no esenciales ante la insistencia de la patronal, lo que deja en evidencia la connivencia que existe entre el Gobierno de Navarra y la CEN.

Los datos, por tanto, reflejan que la estrategia mantenida por el Gobierno de Navarra contra la precariedad laboral y contra la Covid-19 no está sirviendo, que a pesar del confinamiento domiciliario, de las restricciones y de las medidas impuestas por los gobiernos, los accidentes, las enfermedades y los contagios aumentan y se están llevando por delante la salud y la vida de la gente tanto en la calle como en los centros de trabajo. Hay que cambiar de rumbo y anteponer la salud y la vida a todo lo demás.

No se puede luchar contra los accidentes o contra este virus sin las medidas o medios de protección adecuados, no se puede exigir a las personas que trabajen sin equipos de protección adecuados arriesgando su salud y su propia vida. Sin embargo, esto es lo que ha pasado durante muchos meses. Esta crisis sanitaria ha retratado a la perfección la precariedad a la que se someten las personas que trabajan en el sector sanitario y socio-sanitario, de la alimentación y la limpieza, todos ellos sectores feminizados y privatizados, que sufren una gran desprotección en forma de eventualidad, contratación parcial y elevados índices de rotación, así como las personas que trabajan en el transporte y la distribución, que entre otras, también sufren esta precariedad y falta de reconocimiento.

Exigimos al Gobierno de Navarra que prioricen la salud y la vida y garanticen la seguridad de las y los trabajadores. Les exigimos que publiquen los sectores básicos y cambien de estrategia tanto en salud laboral como en la lucha contra este virus. Se deben garantizar las medidas y medios adecuados en los centros de trabajo y no se puede dejar el nivel de cumplimiento de estas medidas sólo en manos de las empresas, las administraciones públicas deben realizar vigilancia y mayor control público. Sin salud no hay economía, no hay vida digna, no hay futuro.

Navarra, 13 de noviembre de 2020

ELA-LAB-ESK-STEILAS-EHNE-HIRU eta CGT-k PREMIAZKO NEURRIAK ESKATU DITU LAN-ISTRIPUEN ODOLUSTEA GELDIARAZTEKO

Covid-19aren ondorioz jarduera ekonomikoa nabarmen murriztu da, baina 2020an 8 pertsona hil dira lan-istripuan. Pandemiak inoiz baino argiago erakutsi du osasuna sistema ekonomikoaren albo-kaltea dela.

Azaroan gaude, urtea oraindik bukatu gabe dago, eta dagoeneko gutxienez 8 pertsona hil dira lan istripu baten ondorioz Nafarroan, 53 guztira Hego Euskal Herrian. Horien artean dugu Joaquin, oraindik ere bere gorpua Zaldibarko zabortegian dago lurperatua. 53 lagun horietaz gain, hainbat eta hainbat langile gaixotu edo zendu dira Covid-19a dela eta. Lan ezbeharren datuak urtetik urtera okerragoak direla salatu nahi dugu eta enpresen eta gobernuen aldetik ez dugu funtsezko aldaketarik ikusten.

Lan-istripuak eta gaixotasun profesionalak onartezinak dira. Gaur egun, gizakien eskura nahikoa baliabide daude, bai pertsonalak zein baliabide teknikoak, horiek saihesteko, baina kostu ekonomikoa dute, eta enpresek eta patronalak ez dute prebentzioan inbertitu nahi. Produktibitatea lehenesten dute beti, epe motzeko onura ekonomikoa langileen segurtasunaren eta osasunaren aurretik, baina pandemiaren garai hauetan ere. Hilabeteetan zehar langileok Covid-19aren aurkako beharrezkoak diren babes-neurriak gabe egin dugu lan, eta horren emaitza hondamendia da egunero prekarietatea pairatzen duten langileentzat.

Urtea amaitzean dago eta Lan Osasun Institutuak oraindik ez du publiko egin 2020ko estatistikarik, baina lan-ezbeharren azken urteetako bilakaera ezin okerragoa da. Kontuan izan behar da martxoan etxeko konfinamendua ezarri zigutela; izan ere, enpresa askok beren jarduera eten behar izan zutela funtsezkotzat jotzen ez zelako, baina lan-jarduera eten arren, eta ondoren krisi ekonomikoa etorri, datuak oso txarrak dira hildako kopuruari dagokionean. Era berean, herritarrak beren etxeetan konfinatzeak lanera joateko betebeharrarekin eta enpresetan kutsatzeko arriskuarekin kontraesana dakarrela salatzen dugu, eta gainera, funtsezkoak ez ziren sektore askok patronalaren interesengatik irekita jarraitu zuten. Horrek guztiak gobernu eta patronalaren adostasunak agerian uzten ditu.

Beraz, datuek erakusten dute Nafarroako Gobernuak lan-prekarietatearen eta Covid-19aren aurka izan duen estrategiak ez duela balio izan. Nahiz eta etxean konfinatuak egon eta gobernuak ezarritako neurri murriztaileak bete, lan-istripuak eta kutsatzeak areagotu egin dira eta jendearen osasuna eta bizitza jokoan izan dira, bai kalean, bai lantokietan. Norabidea aldatu behar da eta osasuna eta bizitza erdigunean jarri.

Ezin da birus horren aurka borrokatu babes-neurri edo bitarteko egokirik gabe; ezin zaie eskatu langileei babes-ekipamendu egokirik gabe lan egitea, beren osasuna eta bizitza arriskuan jarritz, baina hori da hilabete askotan gertatu dena. Osasun-krisi horrek ezin hobeto irudikatu du osasun, gizarte, elikadura eta garbiketa-sektoreetan lan egiten duten pertsonen jasaten duten prekarietatea. Sektore horiek guztiak feminizatuta eta pribatizatuta daude, eta babesgabetasun handia dute behin-behinekotasunean, kontratazio partzialean eta txandakatze-indize altuetan Garraioan eta banaketan lan egiten duten pertsonen ere, besteak beste, prekarietate eta aintzatespen-falta hori jasaten dute.

Nafarroako gobernuari osasuna lehenesteko eta langileen segurtasuna eta bizitza bermatzeko exijitzen diegu. Oinarrizko sektoreak publikatzea eta estrategiaz aldatzea exijitzen diegu bai lan osasunean eta baita birus honen kontra egiterako orduan. Neurri eta bitarteko egokiak bermatu behar dira lan zentroetan eta ezin da betetze-maila soilik enpresen eskuetan utzi. Administrazio publikoek, hauen gaineko zaintza eta kontrola areagotu behar dute. Osasunik gabe ez dago ekonomiarik, ez bizitza duinik, ez eta etorkizunik.

Nafarroa, 2020ko azaroak 13